

Las mutuas, el ministro y el elefante blanco

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 01/04/2023

El ministro de Seguridad Social miente o es una marioneta en manos de las mutuas empresariales.

El ministro de Seguridad Social cuando ayer desdijo la existencia de la propuesta de “Convenio de colaboración y coordinación para la mejora de la gestión de la Incapacidad Temporal y de asistencia sanitaria entre la consejería de salud correspondiente y las mutuas colaboradoras con la Seguridad Social” miente o es una marioneta en manos de las mutuas empresariales. Convenio propuesto a las Comunidades Autónomas que básicamente supone el terminar con el sistema público de salud actual creando un doble sistema, uno destinado a la población activa (personas asalariadas y de trabajo autónomo), exclusivamente asistencial y no preventivo, dotado de recursos y carente de derechos, para lograr la reincorporación temprana al trabajo en caso de baja laboral y otro descapitalizado para el resto de la población. Y ambos sustentados en la provisión privada de la asistencia financiada públicamente, con las cotizaciones a la seguridad social y los impuestos.

De la noche a la mañana el sistema público transferido se recentraliza y a la vez se dispersa entre las 18 mutuas colaboradoras con la Seguridad Social actuales. De golpe y porrazo se promulga la desaparición del carácter público, único, preventivo, basado en atención primaria, investigador, equitativo y descentralizado al que aspira el actual sistema público de salud. Y se hace desde la ausencia de debate social o político alguno como viene a ratificar el desmentido del ministro sobre la existencia de la propuesta.

El ministro deberá explicarnos cómo es que, si no existe dicho documento, a petición parlamentaria de EH-Bildu a los gobiernos central, vasco y navarro, este último lo entrega, aunque tardíamente. Deberá informar también sobre la falta de respuesta de su ministerio a la solicitud de información. El Gobierno jeltzale -socialista de la Comunidad Autónoma Vasca, lo mismo que el central, ha optado por el silencio administrativo. Probablemente, año electoral mediante, discrepa en las velocidades y aproximaciones de la propuesta mutua. Recordemos que ese gobierno ha dado en la presente legislatura acceso a Mutualia al historial clínico de Osakidetza de las y los trabajadores cubiertos por esa mutua.

Nos debemos felicitar por la marcha atrás en los planes de desguace del sistema público de salud que expresa el desmentido del ministro de Seguridad Social, forzado por la publicación de estos planes. En cualquier caso, confiamos en que este episodio haya servido para que amplios colectivos y numerosas organizaciones comiencen a dar importancia al riesgo que suponen las mutuas colaboradoras de la seguridad social, verdadero elefante blanco que todos vemos pero del que no hablamos, para la pervivencia del sistema público de salud.

La solución es clara, nacionalización de las mutuas colaboradoras con la seguridad social, refuerzo del sistema público de salud con sus recursos económicos, materiales y humanos, tal y como prevé la disposición final tercera de la Ley General de Sanidad, para convertirlos

en entidades preventivas frente a los riesgos laborales y habilitar derechos asistenciales de los que hoy carecen las y los trabajadores accidentados y enfermos a consecuencia de los riesgos derivados de unas rampantes malas condiciones de empleo y trabajo.

Mutuak, ministroa eta elefante zuria

Gizarte Segurantzako ministroak atzo ukatu egin zuen “Aldi baterako ezintasunaren eta osasun-laguntzaren kudeaketa hobetzeko lankidetzaz eta koordinazio-hitzarmena, dagokion osasun-sailaren eta Gizarte Segurantzarekin elkarlanean diharduten mutuen artekoa” izenez ezagutzen den proposamena; beraz, gezurretan ari da edo mutuen esku dagoen txontxongilo bat da. Autonomia-erkidegoei proposatutako hitzarmena da, eta, funtsean, egungo osasun-sistema publikoa suntsitzea dakar, sistema bikoitza sortuz: bata, biztanleria aktiboarentzat (soldatapekoak eta lan autonomokoak), soilik asistentziala eta ez-prebentiboa, baliabidez hornitua eta eskubiderik gabea, laneko bajen kasuan lanera goiz itzultzea lortzeko; eta, bestea, deskapitalizatua gainerako biztanleentzat. Eta biak ala biak publikoki finantzatutako laguntzaren hornidura pribatuan oinarritzen dira, gizarte-segurantzako kotizazioekin eta zergekin.

Gauetik goizera, transferitutako sistema publikoa birzentralizatu egiten da, eta, aldi berean, sakabanatu egiten da egungo Gizarte Segurantzarekin kolaboratzen duten 18 mutuen artean. Bat-batean aldarrikatzen da desagertaraztea egungo osasun-sistema publikoak lortu nahi duen izaera publiko, bakar eta prebentiboa, oinarritzen dena lehen arretan, arreta ikertzailean, ekitatiboan eta deszentralizatuan. Eta eztabaida sozial edo politikorik gabe egiten da; horrela erakutsi du Ministroak proposamenaren existentzia ukatu duenean.

Ministroak azaldu beharko digu, dokumentu hori ez bada existitzen, nola litekeen EH-Bilduk Legebiltzarrean Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari eskatu zienean, azken horrek ematea, berandu bada ere. Era berean, azaldu egin beharko du bere ministerioak informazio-eskaerari nolatan ez dion erantzun. Euskal Autonomia Erkidegoko gobernu jeltzale-sozialistak, zentralak bezala, isiltasun administratiboaren alde egin du. Seguruenik, hauteskunde-urtea tarteko, ez dator bat proposamenaren abiadurekin eta hurbilketekin. Gogora dezagun gobernu horrek, legegintzaldi honetan, Mutualiarako sarbidea eman diola mutualitate horrek estalitako langileen Osakidetzaren historial klinikoari.

Zoriontzeko moduan gaude, osasun-sistema publikoa desegiteko planetan atzera egin delako; izan ere, plan horiek argitaratzeak ekarri du ministroaren ukazioa. Nolanahi ere, espero dugu gertakari horrek balio izatea kolektibo eta erakunde askok garrantzia emateko Gizarte Segurantzaren mutualitate kolaboratzaileek osasun-sistema publikoaren iraupenean dakarten arriskuari, horiek baitira egiazko elefante zuria, denok ikusten duguna baina aipatzen ez duguna.

Irtenbidea argia da: Gizarte Segurantzarekin elkarlanean ari diren mutuak nazionalizatzea eta osasun-sistema publikoa indartzea, baliabide ekonomiko, material eta giza baliabideen bidez, Osasunari buruzko Lege Orokorraren azken xedapenetako hirugarrenak aurreikusten duen bezala; zertarako? lan-arriskuen aurrean prebentzio-erakunde bihurtzeko eta, modu horretan, enplegu- eta lan-baldintza kaskarren ondorioz istripua izan duten langileek eta gaixorik daudenek gaur egun ez dituzten laguntza-eskubideak izan ditzaten.

Pamplona /Iruñea, 31 de marzo de 2023.

Iñaki Moreno Sueskun y Félix Zabalza Irigoyen, médicos de medicina del trabajo y atención primaria jubilados.

Nafarroako Osasun Plataforma /Plataforma Navarra de Salud

<https://eh.lahaine.org/las-mutuas-el-ministro-y>